- Ana.—(*Asarre bizian, gorri-gorri, bija polainetara... Alkateak keñu egin bezaio Ostalariari, Anari begira dezaion. Anak bikarbonato-botilla ar beza eskuan, eta ipiñi mai-gañean, asarre*). Tori! Naastu ezaiozute botilla ontatik ardo orri.
- Ost.—Nun demontretik aterá duzu botilla ori? Zapata-barrua al duzu armario?
- Alk.—Bai; emakume jende onek izaten dizkik olako ixil-txokoak.
- Ana.—(*Txorrotx*) Ixil-txokoak, bai;... gizonak erakutsiak... (*Atera bedi. Gizonak edan bezate*).
- Ost.—Aizak. Mesede bat egin bear didak. Ez eiokela Meriku

Xaar orri kasurik egin, eta egin ezak iturria, antxe, leengo lekuan.

Alk.—Ara ba: Kukutxarren baratzen egitera ninjoaken... Kuku-txar orrek ikusi zezan, alegia, zenbat kostatzen dan o'a ola boto-egunetan nere kontra bere burua erakustea...

Ost.—Aizak. Ik eta nik ez diagu inoiz elkar saldu... Ba'dakik, boto-egunetan nolako serbitzuak egin dizkikan iri nere ostatuak! (*Ixil-mixilka, belarrira*) Eta gañera iturri ori, an Elizaren saietsean egiten ba-duk, nere ostatuaren aurrean alegia, iturrira dijoan jendea, ostatura ere bilduko duk... Ikušten duk neretzako ze ondoren ederra?... Ire ta nere onerako duk iturri ori len asmatutako tokian egitea.

Alk.—(*Oso ro limurtua*) Bai, eta bai, Ez duk geiago esan bearrik. Konpreintu diat... konpreintu diat. Itz ematen diat: iturria, ik nai dukan lekuan izango duk... eta ez beste inon. Or nere itza! Eta Okilok itz emana, itz emana duk gero!

Ost.—Millesker, adiskide! Ez nian besterik espero iregandik... To... edantzak beste bein ere!... I eta ni, egundañoko adiskideak gaituk gero! (*Topa egiñez, edan bezate biok*).

Alk.—Esan bezela, iretzat nere itza!

Ost.—Ondo zegok... Botilla-ondar ori gorde, afaltzeko... Ta laister arte. Pasatzean, sartu-atera bat egin ezak ostatuan.

Alk.—Ba, bai. Etzegok gaizki. Joango nauk azkoneko berriakin. (*Ostalari atera bedi*).

AMAIKAGARREN AGERTALDIA

Alkatea bakarrik. Gero Emazte Ana

Alk.—Santxo arrapatzera joan bear diat lenen-lenengo. Agian ez uan Kukutxarrera zuzenean joango... Gero, berriaz,... ah? orain beintzat botilla gorde, emaztea etorri baño len. Nun ezik... (*Nun gorde pentsatzen*). ...Ez, polainan ez!... Ori ba'zekik!... To! ba'zekiat nun: laister arte ortxe egongo duk gordeena, zintzilik dagon zamarra aundi orren sakelean. (*An, pertxan, ezertzen ari dala, betor ixilka emaztea eta geldi bedi gizonaren maltzurkeriari begira*).

Ana.—(*Orroka, asarre alegia, bultza bezela egiñaz gizonari*) Ah! ah!! ah!!! Ederki ari zera zu orain ere!... Miaztu duzu

ongitxo botilla-muturra! Eta gero zer? nork eraman bear ditu zure edanaren ondorioak? Jakiña! Anak! Nik! Etor-tzea duzu gero antsika ta intzirika, *ih* emendik eta *ah* andik... (*Gizonarenak egiñaz*) “Merikua ekatzu, merikua”... Ez duzu lanik; alperrik ari zera, ardo eder ori ezin gorderik. (*Kendu bezaio botilla eskutik*) Emen euki-ko duzu, nai ba-duzu; ementxe, botikaren ondoan. Ortxe, agerian egongo dira botilla biak... Eta ikusiko dugu, bietan zein lenengo ustutzen duzun. (*Atea jo bezate*). Ara! orain ere ba’dugu beste norbait!... Zu alkate sartu-ezkero, beintzat, ba’da etxe bedeinkatu ontan ate-ots eta bisitaririk; ez dezakegula izan minutu bateko atsedenic! Jeeesus! Alkate ta malkate, gauza politak izango dira seguru... Nai duanarentzat! Nik, beintzat, bi txanponetan salduko nituzke pozik, bai bata bai bestea... Joaten al-zera idekitzera zerori... (*Atera bedi*).

AMABIGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Kukutxar

- Alk.—(*Atea idekiz*) To! Kukutxar, zu emen?... Exeri zaite, exeri...
- Kuk.—(*Oiu zorrotz, asarre*) Kukutxar, bai, Kukutxar emen... Uste al-uan, ba, Santxo txakurra neri ozka egitera bidali ta, ni “otx!” esan gabe geldituko nintzana?
- Alk.—Gizona! goza zaite!... Elkar adi dezagun!
- Kuk.—Aditurik asko zegok len ere! I, aizen bezelako bare-kurkullu ori! Zer uste duk? Alkate aizela ta, errian nai dukan guztia egingo dukala?
- Alk.—(*Zorrotz bera ere*). Errespetatzen nazazu gero! Bestela nik errespetatzen dut nere burua. Ikusiko duzu, alkate-makilla eskuan artzen ba-dut.
- Kuk.—Alkate-makilla? alkate-makilla?... Akullua esazak, akullu aundi bat... Aretxek emango dik ederkien ire eskuan, ez alkate-makillak...
- Alk.—Esazu herriz olakorik! esan beste-bein!
- Kuk.—Sar adi i ere, sar, nere baratzean, eure iturri ta miturri. Ikusiko duk zer gertatuko zaiken.
- Alk.—Zure baratza, erri-lurrean da, Kukutxar. Nik or iturria nai dudanean egingo dut... nai dudanean.
- Kuk.—Egintzak, egin... Bafian pentsa ezakek, ik iturria egiten

ba-duk, besteren bat ere izango dala gobara ta lixiba pres-
tatuko duanik.

Alk.—Presta ezazu nai duzuna... Ikusiko dugu nor ateratzen dan
nagusi... Eta orain zoaz kanpora!

Kuk.—Ba'nijoak... Bidali egiten nauk. Bañan jakin ezak, beste
norbait ere nik beste nunbaitetik bidaliko dudala orain-
dik. (*Atera bedi. Alkatea, unetxo batean, bakarririk*).

AMAIRUGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Ana Emaztea

Ana.—(*Sar bedi*) Jess... Zer zuan gizon orrek olako trumoietan?

Ez al-duzu ba, arren, orren baratzean iturria egiten!

Alk.—Ez... Ez nuan ala egingo. Bañan orain besterik izango da...
Kukutxarrekin nai edo ez nai, iturria antxe izango du...
An, bere baratzearen erdi-erdian... Nik erakutsiko diot
Kukutxarrereri nor dan Alkate, Erri ontan. (*Asi bedi oñe-
tako-jazten*).

Ana.—(*Patata-txuritzen*). Ja! ja!! ja!!! (*Irri zorrotz*). Ba'dakizu
zer esan zidan bein norbaitek gizon batentzat, ezkontzari
buruz gizon aren berri eskatu nionean?

Alk.—Zer esan zizun, ba, tira, gizon arentzat?

Ana.—Gizon ura etzala ez zaldi, ez asto.

Alk.—(*Algara bizian*) Mando zala, beraz?

Ana.—Ez, ez... Etzan, erabat, astoa bezain asto; ez eta, erabat,
zaldia bezain bizkor ere. Ba'zuan bietatik; bañan etzan
mando. Mando baño gutxiago zan.

Alk.—Zer zan, ba?

Ana.—Orixe... Orain asto, ta gero zaldi... Ta gero zaldi; eta,
ondotik, herriz ere, asto. Eta ola beti, salto ta jauzika:
astotik zaldira, ta zalditik astora...

Alk.—Gizagajoa! Izango zuan nunbait lanik asko bizi izaten eta
danona egiten, ola baldin ba-zan!

Ana.—Ondo ala ere! Ba'zuan, bai, lanik asko gizagajoa, bizi
izaten eta danona egiten... Bañan, bai al-dakizu nor zan
alako gizon ura?

Alk.—Nor zan, ba, alako gizagajoa?

Ana.—Ooorra ba! ta (*Oin-muturretan eta sorbaldak goitituz*)...
ni nintzala aren emazte-bearra!

Oiala beera.

Sokoa, 1952-XII.

Artetxe'tar Joxe'ren «Bidez-Bide» Etxaide'tar Yon'ek euskerara emana

IKUSKAI MARGOLARIA

Bidani ta Goiatz arteko zelai ertze batean, zinta zuri baten idurizko bideberri alboan zegon arratsalde artantxe Askue'tar Dunixi Ernio' runtz begira zeukan iru-ankekoaren aurrean.

Ilunabar aintzineko ubel-laranja margoak gallurralde malkorretan biurkiro yostari ari ziran. Udazkeneko urre-margoak mendi-zelaietako baretasunari bere igurtzi gozoa zemaion. Goi-alde oietan ba'ditu udazkenak be-aldeak ez darion eder-intzik. Berabidean ezintzizko udazkena da, geldi-naika eta min-oiuka ari dana.

Ene biziketaren bizkar-burnia koka-lekutzat arturik lanean ari dan edertilariari begira nagokio. Beñola, onela mintzatu zan Kape-rotxipi margolaria Azkue'ri buruzki: idazketan, margolaritzan añakoa, margolaritzan berriz idazketan laingoa. Eztira giputzik asko gaztelera garaiki darabiltenak eta banaka batzuk, txit banaka gero, bere ederraren yabe egin diranak.

Ene ustean gaztelaren eder-yabe egin diran giputzak iru ostxek dituzu: Salaberria'tar Yose-Mari, Mourlane-Mitxelena'tar Kepa ta Azkue'tar Dunixi. Au ezta inñundik ere gañerantzeko idazleen makurgarri, beroietan ene burua ikusi uste baitut. Giputz-idazleak eta euskotarr idazleak eskuari, gauzaren adierazteko eta bereizi, xuxen eta inguru-minguruketarik gabea dute.

Idazketaren eder-gaia eraginkizuna oi da. Azkue, ixilpeko onen yabe da. "Mi pueblo ayer" izenarekin ateratako bere liburuak Donosti'ko Kanpai-kalearen azalpen labur bat du. Atsegin zait Donosti'ko kale-zâr orren bizigiroaren ikuskizun eta adikizun neurkoi ta bikañia tarteka ber-irakurtzea.

Alatsu da-izan Azkue margoketan. Kolore legun, ezti eta goibeltasun bare batez igurtzita. Gure errialdeko margo apalak darabiltzi, iza-

kera liriko bereixi ta guri-guri bat zuzenkari zaiolarik. Azkue'netan biotza da margolari.

Atsegin izaten dut lanean ikusirik eta bere mintzoaren entzutea berriz, bere margokiak ikustea edo-ta margo-lanean ikustea ainbat. Bere lana oñaztu dularik, Bidani'raño alkarrekin yoan gaituzu. Bere mintzaira benatsu, etenkor eta baretsua onelatsu ari zan:

"Gure errialdeko ikuskaria bereizia izatez gañera txit aldakorra da. Etengabe, unerik-une aldaketan ari da. Argia, ikusmena itxutu laingo argia, ikuskariaren lenen-gaia izan oi da beste giro alderdientan. Emen, margoa da nagusi. Gañera, gure ikuskariaren tankera ta aldakortasunak urtealdiak baño eragingarri biziagoa ba'dute; aizea, alegia. Aizeak astindu ta ifnarrotsi egiten ditu biziki gure lurraldeko margokizunik apalenak eta ezaugaitzenak. Eusko-lurrean ari dan margolariak iru aizeren berri du: Iparra, Zearr-aizea ta Ego-aizea.

"Iparra, itxasaizea alegia, urdin margogaia da; Zea-aizea, uber margoen aizea; Egoa, urrunak xaretzen dituna. Iru aize auen antzo ba'ditugu Gipuzkoa'n iru ibai bakoitza bere bereizgarriakin: Oria, Urola ta Deba. Oria, gorritz margoztu oi da; Urola, ubelez; Deba, margo motelez, urdin maillak erabilki. Oria, alaiia da-izan; Urola, zorrotza; Deba, musintsu.

"Deba'ren agerkizunik bereizgarriena Mendaro euriak arturik da, txaraz yositako egi malkortsu ta beltzak ur-yario daudelarik. Iñungo ikuskariak eztu ain biziki nabarmentzen ezetasun eta ekaitzaren ustemenena. An, margo-maillak urdin-orlegitsuak dira txit. Oria'ren arana berriz zabalagoa, alaiagoa da. Egal landuetako karmin, gorri ta laranja azpialde dardaragarrietan garaiki somaten dira. Segura delako iria muño gain batean kokaturik, ikuskizun zoragarri izan oi da arratsaldetan.

"Oria ta Deba aranartean Urola dago. Ezagutu ote zenitun Ugalde'ren zalgurdiak, Jenaro'ren kotxea? Ni neu, ongi gogoratzen naiz zaldi-girgillen txilin-otsaz Zumarraga ta Azkoiti bitartean dagon iru leguako mendarte goibel eta medarra. Noizik eta bein bide eta ibai ertzeke argi-etxean ots leguna eldu oi zan zalgurdiraño. Etxe-zaiak, atarian abarketak yosten ari zala alki gañean zaldizka yarrita, zalgurtzaia agurtzen zun bere lanari uzteke. Mendarte-bide bakarti ta illunaren burua Loiola'ko ibar argitsua zabaltzen da.

"Loiola'ko ibarrak eztu Oria-obiaren kolore-mailla alairik. Izarraitz, larrosa koloreko malkortzarra da, baño, eguratsean argi ta margoak iragazten ditun lurrin-lañoa sortzen da. Loiola'ko arana benatsu ta aundigirotsu da. Argitasunez eta yauntasunez ornituriko Izarraitz'en gandorrari nabaigarri zaio aurrez-aurreko Pagotxeta'ren belz-

tasuna eta Arauntza'ren buru-soil latza. Oro da aundigirotsu Loiola'ko ibarrean.

"Bidaso obiak ere, eskualde eragingarriak ditu. Bere zintzur biurrien goibeltasun erdiragarria! Geroenean ordea, osertzak zabaltasun artzen dularik, Behobi, Irun eta Ondarribi'ren ikuskizuna paregabea da...

"Zumaia, goizetik, iparr-aizeak yotzen dularik, ikuskai zoragarria da alaber. Etxaurre zuriak, oial-ontzien soñak eta soroetako gorri-ubel-orlegiak kaieko uretan dar-dar antza egiten dute. Baranoan berriz, Santiago'ko ondarreta ta kai artean argi lurrin bat edatzen da xarepeturik bailegoan.

"Itxasaldea, iru aizetatik edozeñek yota gauza bikaña da, Getari baitik-bat ipar-sarkalde bitarteko aizeak yotzean. Oartu al-zera iñoiz ere, Zuloaga'k margoztu zun Elkano'ren laukian, ekaitz-zurrunbillo artetik Getari argituz yausten dan eguzkiaren argi-txortan?..."

Luzaro egonen nintzake oraindik ere Azkue'tar Dunixi'ri entzun eta entzun. Berandu zan ordea egun argitan yatsi nai ba'neza Errezil'go aldapa.

IRUDILARIA (1)

"Kresala", leioak urdiñez ditun euskal-tankerako etxe zuri ta polit baten izena duzu. Bertan du bere lantegia Beobide'k. Faropean dago, Zumai'ko itsas-ibaiaren abo-aboan. "Kresala"ri aitz, itxas-ibaia-aren beste aldetik Santiago izeneko ondarreta edatzen da; ondarretaren garai aldetik Zuloaga'ren yabetasuneko Santiago-etxea datza.

Beobide'ren etxeñoa makillez esiturik dago. Zedrozko enbor izugarri bat eta arritzar trinko batzuk sarrerako atera urbildurik dartzate esi-barrutik. Aien alboan berriz zakur bat dago estudioa zaitu lanean.

Aren zaunkak entzunik, irudilaria ba'dator luzatzeke, lanyantzian eta zulakaitza eskuan dakarrela. Bere begi urdiñak irri-parre ezta dagite eta bidebatez beroien obi sakonetik datorren soa mugigaitza da. Irudilaria, idazlea bezelaxe ta edertilari guziak bezelaxe, Yaungoikoa'ren ikasle da. Beren lana luzeki ta maiteki begiratze orrek alderdi batetik eta alkarkidetasun (2) atxeman eziñak billaka bea-

(1) "El escultor" du izenburutzat erderazkoak. Beste itz asko bezela, au ere neronek asmatu bearrean arkitu naiz. Geroak bota bizale epala itz berri abei.

(2) Itz onen ordez "egokitasun" yarri-ez yarri ibilli naiz erderazko "armonia" adierazteko.

rez, gelditzeke ari zaioten eten-indarrak bestetik, geldikortasun be-reizi ta saieskaitza erantxi oi diote edertilarien soari.

Ezkaratzean, zurubi-oin alboan eta zumezko maitxo baten gañean, Zuloaga'tar Iñaki'ren bustoa ageri da. Margolariak sarritan itxas-adarra txalupan igaro oi du irudilariarekin txolarte bat egiteko. Gaur bertan, arratsaldeko eguzki-igurtzia aprotxatuz emengo aldi egin du Iñaki yaunak; ain zuzen ere, une batzuk besterik ezтира alendu da-la. Etorri-datorrenean, bere buru-ezurr konkortsuak arrera egiten dio, bere irudiaren buru altsu ta bikañak. Margolariari etxe au bere-berea zaio noski baño noskiago, irudilariak bere estudioko ormetatik zintzilik Zuloaga'k izenpetutako antz-irudi ta apunteak baiditu. Aitzitik, aurkez dagon etxean, Zuloaga'k maitekiro gorde oi ditu irudilariaren landuketarik onentxuenetako batzuk.

Estudioaren lau bazterretan, edertiari buruzko aldiroko ta liburu sail ederrak pillaturik daude. Zoko batean, ingelاندarr teleskopio aundi ta zâr bat eta ormetatik esegita bi argazki-kutxa. Bi leioren tar-tean autsez yositako barometro bat. Ormetan Velazquez' (3) en margoki aldakia: Doria aita, Montañés irudilaria, Esopo, Menina bat. Ba'dago ere beste askoren artean ikatz-irudi bat Zuloaga'k izenpetu-rik; Uranga margolariari dagokio ta zoragarriro dagi egizkoaren ai-torra.

Nik ere ezagutu nuen Uranga margolari zâr, on eta umekoia. Bere betaurrekoen gañeko aldetik begiratzeko oitura zun eta bere itz neur-tu ta asmagaitzaz baño, bere esku legunen eragiñaz eta bere arpegi bizartsuaren kifu esakorraz geiago mintzatzen zan. Estudioan sakaba-naturik ba'dira nola-nai ere berrogei buru igeltzuzko, bustiñezko, arrizko ta zurezko eustazpi goitien gañetan. Buruok denok irudilariari begira ezarrita dagoz. Alaber, beste asikin, deun-irudi ta aurra beso-tan datzan Birjin auen arpegia lurraldekoa da-izan, Zumai'ko neskatx bat aukeratu baitzun Beobide'k egin-gaitzat.

Irudilaria, besoak gurutzaturik eta bere baitan bilduta, aurrean daukan asikiñari begira dagokio luzaro: Gipuzkoa'ko Aldundia'ren aginduz egiten ari zan Yosu-Biotza'ren irudi bat. Txitean-pitean zurda-ki bat ezetu ondoren, loi tankeratua ezetzen du. Au egin ondoren, 'ostera besoak gurutzatzen ditu eta bere sorkariari begira liluraturik gelditzen da: Irudi luze gogakizunez betea, here bularra zabal-zabal, emankizun oso baten ezaugarri.

—Zer zion Zuloaga'k? —itandu nion here ixilkortasuna eten nairik.

—Zera esaten zun —erantzun zidan—, alegia, Yosu-Biotza yudu

(3) Velazquez yatorriz euskal-abizena ote? Idiákez Idiakaitz zanez, Ve-lazquez ere Belazkaitz zitekean.

tankeran ager-eraziko lukela, eguzkialdeko yazkerakin, erropa guztiz urratuta, neka-neka, lerr-eginda...

Beobide oster a ixildu da. Errespetagarri bitez sormenaren miñezko iturri diran ixiluneok. Buru ta irudizko ingurulari arrigarri ta kopurtsak, irudilaria lanean ari dan aldera begira daudenez, ba'dirudi edertilariaren alegiñari lagun dagoitela ixilki. Estudioan ixiltasun barnerakoia da nagusi. Eguzki izpi bat iragazten da leiarki zabaletik. Itxasoak urreko arritegia yotzen atera oi duen burruna irixten da soilki.

Txolarte bat egon ondoren, beste galdera batekin ausartu natzaio:

—Mintzul dagozkizun adiskideok ez al-dizute iñoiz ezertxore esaten?

—Ezer esan ez eta zenbat esan!

Ixilgiroa berriro. Irudilaria, besoak gurutzaturik, bere asikiñari asetzeke begira dago. Geroenean, aldi luze baten buruan, geldi-geldi esaka asi zait bere buruarekin ari bailitzan:

—Antz-irudia, soinkera ta ayurri agerlari biurtzea, izan da nere buruaren astingarrietako bat. Buruari tankera emateak zein eragozpen gaiztoak autsi bearrak ditun! Buru bakoitzak urragai berri. Danok dute korapillo latz baten urra-bearra. Neretzat, edertilari guzientzat bezelaxe, irudigintzaren biziak or du batez ere oñarri; burua da izan, irudigintzaren alderdirik erakargarriena. Orrek, asebetetzkoa bearr du izan. Zati ori garaitu bearrekoa da notiñaren barne-biziaren yabe egingo ba'gera. Gizonak gallurraldea du zatirik oberen.

Eguzkia yartzearekin kai aboko ur-arresiruntz abia giñuzun.

Eguna luzeago dalarik, eguzkiak iparretik urbil du oatze; geroenean, bere ibilbidea laburtuz doia Sartaldera saiestuz. Dagonilleko eguzki-yartzeak itun-eragingarri dira, egun luzeak laburmiñez asiak baitira (il onetan aixa nabaitzen da beraldia) Udazkenaren dei bailiran.

Argazki kutxa bat eguzkiaren yartzera zuzendu ba'ledi alkarri yarraitzen zaizkan bi egunetan eta argiari sartzen utzi ba'lekio, eguzkiak osertza ikuitu unean, izarraren ezkereratzea nabaigarri izango litzake.

Gaur, eguzkiak, yeisterakoan, Lekeitio'ko Santa Katalina'ko punttan billa zun oatze. Osertza aulki nabaitzen zan lanbro me-me tar-tean. Urrutian lurrin-ontzitxo baten itzal uberra ikusten zan. Eguzkiaren diztirak, astinduka bezela, urre-antzeko diztira erne-arazten zun uretatik. Obo diztirakorra anpatutako bola gorri biurtu zan geroenean. Itxasoko terziopelo urdiñean odolezko ibai lerratu zan orduntxe. Arkaitzetan ugiñak burugogorki lertzen ziran. Itunaldi aun-

digirotsu bat egin zan ororen yabe. Ain geldiroko eguzki-yartzeak ixiltasuna sortu zun gure baitan.

Orduntxe egin nintzan ene adiskidearen ixil-uneen yabe.

AZKENEKO TTUNTTUN YOTZALLEA

Urteak eta batez ere bere inguruko arnas-giroak, azpi-yorra egin joten emeki-emeki bere gaztaroko oldarrari eta azkenerako gaitz-usteak menderatu zun Kanpion, paregabeko gure Kanpion. Ba'zun noski arrazoi orla izateko!

Etzitun begiak ondarrez itxutu eta are gutxiago bere burua luma tartean gorde. Bere erriaganako maitasun sakonak ere etzion iruzurr egin. Gogoak sarri oi duen saiespide gaizto bati etzion lekurik eman, alegia, gauzak nai genukenez ikustea, diran bezela ikusi bearrean. Aitzitik, bere gaitz-uste berberak oarretan neurritsu egiten du. Alabaña, ez ote gaitz-usteduna itxaropenaren gordailurik garbiena? Gure ayurriaren alderdi oro dakus. Naikotzat etsi ezpa'leza pozkidagarri au, bere maitasuna neketsu baita, lirismoa deritzan akats aundian erortzetik zuzenbideratzen du beñepein.

Lirikoak baigaituzu txit. Gure agerkerak gordeak izanarren, gure animaren garbimiña maite izanarren —bearbada auxen izaki yoera onen pizgarri— gure irudimen egalari ta xamurrari sukortasun bat garai zaionean, zuzendu eziñeko lirikoak oi gera.

Lirikoak geienetan izate onekoa da. Bere alderdi onak arrotzen leiatzen da beñepein. Alabaña, iñor eztago lirikoa bezain urbil egia gezurtatzetik. Lirikoa, era batez ezpada bestez, egiaren garratza ezititzen saiatzen dan gizona da. Alaber, sarritan leratsu izan oi da eta naikotsutan fanatismo mugak yo ta austen ditu. Ezpaitu sekula itzallik ikusten, argiaren yabetzako aldea baizik. Lirismoak zeinbesteko kalteak ez ote dizkigu ekarri!

Lirikoak bere buruaren esi-zale da. Eta ba'dira anizka euren artean beren lirismoa bizi-bearrari eta politikari erantxi nai lioketenak. Politikazalea, egizko politikazalea, itzaren esanai garbiari gagozkiola, besterentzat ari dan gizona da. Eginbear au zaio zurigarri bakar. Lirikoak berriz, bere buruari zor dio bizia, gertakizunak garaitzen zaizkio soilki.

Ez diñot Kanpion lirikoa eztanik; ez orixe. Bañan bere idazkietan ba'ditu sinesgaitz usañeko etenaldiak. Batzutan, etenaldiok ain sarriak diranez, gertabearrari atxikitzen zaizkiola dirudi. Etsitasun au, aspergaitz, burukeritsu, goibelkorr da izan; batzutan erdibigarri.

Kanpion, ingurura so egite utsarekin, sakon-sakonetik eta muin-

mufñetik maitasun-zauriaren lekaioa ertetzen zaion gizona da. Sort-
erria biotz-biotzez maite du, burua galtzeke ordea.

Au daia-ta, orok zaizkio yasangarri. Ez bakarrik sinist-ukatzalle,
saiestu ta edozertaraten diranak, baita ere, maitatuz, irmotasunik ez-
taukatenak eta egiaren yabe egiten eztiranak, edo-ta idurikeritan ariz
beren egizko borroka lekutik itzultzen diranak. Iñork eztio entzuten
ordea; bere abotsa griña ilkorrak besterik sortzen eztiran lekaroan
ari baita oiuka. Bere zartzaro aintzakorra odolketarik gorrienean aki-
tu zan, Zeruak, ikuskizun aren izugarrikeria estaliz, gizonak baño
erruki geiago agertu zion.

Kanpion, Olite'ko errege-gaztelu-zarraren torre ta almenen iduri
da, "ondakin ororen gañetik zerurontz zutitzen baitira zuzen-oiuka la-
rrikaretan". Bere eginbearra, gure anaiarteko dollorkeria adieraztea
izan da. Gure edesti-zear gure ezpatak geronen odoletan ezetu bes-
terik ezpaitugu egin. Alkarmaitasunak eztu gure baitan argi egin nai.
Alkarri pakealdi bat opa diogunean berriz, Dante'ren irudimenak exe-
rita, ixilik, arkaitzari buruz, alkarri bizkar emanda, begiak itxita,
burdin-ariz yosita sortutako zorikabeen antza dugu.

Di vil ciliccio me parean coperti
E l'un sofferia l'altro con la spalla.
E tutti dalla ripa eran sofferti.
Così li ciechi, a cui la roba falla,

... ..
... ..


E come agli oggi non approda'l Sole
Così all'ombre, di ch'io parlavo ora
Luce del Ciel di sè larfir non vuole;
Ch'a tutte un fil di ferro il ciglio fora
E cuce, sì com'a sparvier selvaggio
Si fa, perocchè queto non dimora.

Comm. XIII'gn. Kantaldia.

Bere "El Genio de Nabarra"n esaten digu: "Iñoiz ezta ankapetu
zigor-bildur gabe gure lurraldean, alderdikeria gaitz iguingarritzat
yotzen dun esakuna. Gure ondamenak darakuskigu zein egitsu dan
Ebanjelio'ko epai beti-iraunkorra: Zatiturik datzan erria txêtua izan-
nen da". Gure gaitzik geienak barrendik baidatozkigu, ez kanpotik.
Gu gerok gaituzu, izan ere, gure erriaren etsairik gaiztoenak.

Kanpion'ek Henao ekartzen digu maiz-aski gogora. Idazle onek ere, obeki eziñik eman zigun labur-zurrean gure edestiko gorroto kemenaren berri. Kanpion ordea, edestigilleak bearreko dun iaioatasunaren yabe da, igarri-araztekoa, alegia. Kanpion'ek somatu-erazteko do-aia ba'du, anima lotsakorraz luma dar-darr izuka gelditzen zaionean ere... Bere irudimenean sortutako Pedro Fermín Izko indiano zâr eta ttun-ttun yotzallearen antza bizia du. Igande illunabarrez doñurik erdibigarrienak yotzen ditu bakar-bakarrik, begiak malkoz blai, larrikarak estututa bere sorterri berberaren atarian... Ezpaitzion semetasunik aitortu nai eta entzun ere egin bage irrikeriz uxatzen du.

Kanpion berbera da Erraondo'ko azken ttun-ttun yotzallea!



EL PRINCIPE CONSTANTE

1. El hada salió de lo hondo del bosque de las encinas y cortó el camino al príncipe.

—Escucha, príncipe.

—¡Hola guapa!

—¡Déjate de tonterías! Quiero hablarte muy en serio. Soy un hada, y un hada no debe nunca ni decir ni oír tonterías. ...Mira. Tú vives contento ¿verdad? Comes carne de cordero y frutas secas y bebes vino de la tierra; haces reverencias a los árboles de tu parque y dejas caer las flores en el río; tienes viejos amigos que te llaman muchacho y de vez en vez te arriesgas a vestir al modo cortesano; te gustan los caballos y pereces por las mozas... No puede ser. Voy a hacer que en adelante comprendas cuán mezquina es tu felicidad y cuán tonta tu dicha.

(El príncipe se avergonzó pensando en lo que le gustaban los caballos y las mozas).

2. Sucio y pálido andaba el príncipe. El frío y el sueño le apretaban en todos los rincones del palacio.

Un día su madre, que eternamente hilaba la rueca al modo bobo, le sonrió desde su cuartucho.

—Estás asqueado ¿verdad, hijo?

El príncipe dió un grito y le rompió la cabeza de un puñetazo. A la reina viejuca los ojos le quedaron torcidos por debajo de la toca y la boca arrugada y prieta por encima del babero.

El príncipe se tiró en el suelo y empezó a llorar. Al poco tiempo se durmió y soñó que una manada de cerdos desorejados comían las puertas de su casa.

3. Por segunda vez el hada salió de lo hondo del bosque de las encinas y cortó el camino al príncipe.

—Hice que entendieras cuán mezquina era tu felicidad y cuán tonta tu dicha. Llené tu corazón de hastío. Este hastío hubiera debido dignificarte (el príncipe pensó sin querer en los caballos y en las mozas y se avergonzó de haber roto la cabeza a su madre); pero sólo ha servido para convertirte de bestia en fiera... No puede ser. En adelante la ilusión será tu único patrimonio. Serás mendigo.

4. Y mendigo se encontró el príncipe en el medio del camino, frente a un viajero mercader.

—Dios te guarde, hermano, y te dé su paz—saludó en voz baja el viajero mercader.

El príncipe lo descabalgó de una cuchillada en el vientre. Arrancó luego el saquillo de su cinturón y se alejó poco a poco, mirando cómo el viajero mercader volcaba su sangre en las piedras del camino.

5. Por tercera vez el hada salió de lo hondo del bosque de las encinas y cortó el camino al príncipe.

—Hice de ti un mendigo. Esperaba que la necesidad te convertiría en un hombre humilde y esperanzado. Y me he equivocado. La necesidad te ha convertido en un pobre desesperado... No puede ser. En adelante no sentirás ya ni el hastío del fácil contentamiento ni la angustia de la necesidad. Serás un pequeño burgués.

6. Y el príncipe se encontró en una casita baja de la calle de los Cuchilleros.

Su fortuna era regular y con ella podía ir viviendo regularmente. Pero...

Y sucedió que un año hubo hambre en la ciudad. Y sólo en los graneros del príncipe había trigo, porque el príncipe era listo y había discurrido con razón.

Y he aquí que el oro de los ciudadanos fué a parar a los graneros del príncipe.

7. Por cuarta vez el hada salió de lo hondo del bosque de las encinas y cortó el camino al príncipe.

—Hice de ti un hastiado y rompiste la cabeza a tu madre; hice de ti un mendigo y abriste el vientre de una cuchillada al viajero mercader; he hecho de ti un pequeño burgués y has robado a todo un pueblo... ¿Quieres decirme qué remedio puede tener tu maldad? Porque lo que es yo, no conozco ninguno que esté a mi alcance...

El príncipe bajó los ojos un tanto avergonzado. Se dió cuenta, por vez primera, de lo mal que había obrado y sintió ganas de so-

llozar y de recriminarse. Pero se dominó y alzó la vista hacia el hada del bosque de las encinas.

—¡Oye!... ¿por qué no te casas conmigo?... Tú eres buena... y así... estando siempre a mi lado...

El príncipe se interrumpió. Le habían gustado mucho los caballos y las mozas; pero, como es natural, jamás se había declarado.

El hada del bosque de las encinas se puso como la grana y empezó a balbucear.

—¡Yo!... ¡Yo!... ¡Yo!... ¡vamos!...

8. Al día siguiente se casaron. Hubo escándalo en el Reino de las Hadas y sorpresa en el Palacio. Pero la situación se normalizó en media semana y a partir de entonces puede decirse que la vida de ambos esposos se deslizó con toda felicidad.

Tuvieron seis hijos: tres chicos y tres chicas. Los chicos, desde su más temprana edad, comenzaron a gustar de los caballos y de las mozas; y las chicas, también desde su edad más temprana, comenzaron a sentir el tirón del bosque de las encinas, de ese bosque en cuyas entrañas la noche guarda una piedra hecha luna blanca y negra.

De cuando en cuando al hada le estallaba en los labios la risa que temblaba en su corazón.

—Yo... yo soy un hada, y por lo menos, por lo menos, me quedan mil años de vida todavía...

—¡Calla, bruja hereje!—murmuraba el príncipe. Y se le repudría por dentro el alma.

Pero estas escenas no ocurrían con demasiada frecuencia. Y cuando el príncipe murió de unas hierbas que le dieron, el hada se acercó a su cadáver y lo miró con una mirada muy larga y muy triste.



PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS
(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLOIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruga.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 15 Ptas.

Suscripción anual: 40 »

EGAN: Ejemplar suelto: 4 Ptas.

Suscripción anual: 14 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 50 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales.
Número suelto: 10 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo
SAN SEBASTIAN



ESCELICER, S. L.
SAN SEBASTIAN